

ARIKETAK

H
I
T
Z
E
Z

H
I
T
Z

1 Eman euskaraz ondoko perpaus osagarri hauek. Lehenengo eta behin, galdegaiaren ohiko araua goitik behera betez eta, bigarrenik, proposatzen den salbuespena erabiliz –aditz deklaratioben lekua aldatuz– edo bestelako bidez baliatuz (ikus Aditz deklaratiboak, 18. or.).

A) Asimismo, se ha **confirmado** que algunos alumnos no dominan el euskera batua, ni incluso el dialecto familiar.

Galdegaiaren ohiko araua betez

.....
.....

Arauaren salbuespena erabiliz edo bestelako bidez baliatuz

.....
.....

B) Algunos especialistas **consideraron** que el euskera unificado no recogía las características de sus dialectos, con lo que ello suponía de falta de base vital a un proyecto como el que se pretendía.

Galdegaiaren ohiko araua betez

.....
.....

Arauaren salbuespena erabiliz edo bestelako bidez baliatuz

.....
.....

C) En aras de una mejor comprensión, debemos **tener en cuenta** que el euskera ha ampliado su vocabulario, ha unificado su ortografía y ha experimentado un gran cambio en su estilo.

Galdegaiaren ohiko araua betez

.....
.....

Arauaren salbuespena erabiliz edo bestelako bidez baliatuz

.....
.....

D) La Constitución Española de 1978, en su artículo tercero, **establece** que todos los españoles tienen el deber de conocer el castellano y el derecho a usarlo.

Galdegaiaren ohiko araua betez

.....
.....

Arauaren salbuespena erabiliz edo bestelako bidez baliatuz

.....
.....

ARIKETAK

G R A M M A T I K A

- 2 Ariketa hauetarako, Euskaltzaindia apurka-apurka kaleratzen ari den *Hiztegi Batua* hartu dugu oinarri. Ondorengo ariketen bidez, hainbat hitzek euskara batuan zein idazkera duten argituko duzu. Baina, kontuz! Batzuetan, erantzun zuzen bat baino gehiago daude eta.
- a) Andonik erakutsi duen jarrera **erabakiorra** izan da bozketa gure alde ateratzeko.
b) Andonik erakutsi duen jarrera **erabakigarria** izan da bozketa gure alde ateratzeko.
c) Andonik erakutsi duen jarrera **erabakitzailea** izan da bozketa gure alde ateratzeko.
 - a) Irakasleak ez zuen nahi, baina azterketak **erakustarazi** dizkiote.
b) Irakasleak ez zuen nahi, baina azterketak **erakutsarazi** dizkiote.
 - a) Ikusi arte, eta **eskuminak** etxekoei.
b) Ikusi arte, eta **eskumuinak** etxekoei.
 - a) Bai, txarto egin dut; **ezagutzen** dut huts egin dudala.
b) Bai, txarto egin dut; **onartzen** dut huts egin dudala.
c) Bai, txarto egin dut; **aitortzen** dut huts egin dudala.
 - a) Besteren esana egin horrek? **Ezta** lepoa bihurtuta ere!
b) Besteren esana egin horrek? **Ez eta** lepoa bihurtuta ere!
 - a) **Hilargirik** gabeko gaua, tonerra baino beltzagoa.
b) **Ilargirik** gabeko gaua, tonerra baino beltzagoa.
 - a) Ezta **hurrik** eman ere!
b) Ezta **urrik** eman ere!
 - a) Horiek txima luzeak! Ba al dakizu **ileapaindegia** zer den?
b) Horiek txima luzeak! Ba al dakizu **ile apaindegia** zer den?
c) Horiek txima luzeak! Ba al dakizu **ile-apaindegi** zer den?
 - a) **Ingeniarientzako** lan-poltsak ireki dituzte.
b) **Injineruentzako** lan-poltsak ireki dituzte.
c) **Injeniarientzako** lan-poltsak ireki dituzte.
d) **Injenieruentzako** lan-poltsak ireki dituzte.
 - a) Pozik ote dugu **irakurlegoa** ariketa hauekin?
b) Pozik ote ditugu **irakurleak** ariketa hauekin?
c) Pozik ote dugu **irakurleria** ariketa hauekin?
 - a) Autobusari itxaroten **diodan** bitartean itxarongo **dizut**.
b) Autobusa itxaroten **dudan** bitartean itxarongo **zaitut**.
c) Autobusa itxaroten **dudan** bitartean itxarongo **dizut**.
 - a) **Izaera** idazkera aztertuz ezagutzen dute aditu batzuek.
b) **Izakera** idazkera aztertuz ezagutzen dute aditu batzuek.
 - a) Izozmendi batek **hondoratu** zuen Titanic.
b) Izozmendi batek **ondoratu** zuen Titanic.
 - a) Argitu beharko dugu eraikin horren **jabegoa** zein erakundek duen.
b) Argitu beharko dugu eraikin horren **jabetza** zein erakundek duen.
c) Argitu beharko dugu eraikin horren **jabetasuna** zein erakundek duen.
 - a) Ariketa hauek **jakinmina** piztu al dizute?
b) Ariketa hauek **jakin-mina** piztu al dizute?
 - a) Hippy, ez! Yuppie **janzkera** ekarri behar zenuen aurkezpena!
b) Hippy, ez! Yuppie **jazkera** ekarri behar zenuen aurkezpena!
 - a) Planaren ebaluaketa **jarraitua** egingo dugu.
b) Planaren ebaluaketa **jarraikia** egingo dugu.
c) Planaren ebaluaketa **jarraia** egingo dugu.

A R I K E T A K

18. a) **Jaiki, jaiki**, funtzionario, badator autobusa!
b) **Jeiki, jeiki**, funtzionario, badator autobusa!
19. a) Noiz **jaitsiko** zara bisitatxo bat egitera?
b) Noiz **jeitsiko** zara bisitatxo bat egitera?
20. a) Auzi horretan ez **gara** era egokian jokatu.
b) Auzi horretan ez **dugu** era egokian jokatu.
21. a) Ez **gara** zurekin berriro ere jolastuko.
b) Ez **dugu** zurekin berriro ere jolastuko.
22. a) Ez dut **kajoi** honetako giltza aurkitzen.
b) Ez dut **kaxoi** honetako giltza aurkitzen.
c) Ez dut **firadera** honetako giltza aurkitzen.
23. a) Aste Santuan, **kanpadenda** hartu eta Irati aldera joango naiz.
b) Aste Santuan, **kanpaidenda** hartu eta Irati aldera joango naiz.
c) Aste Santuan, **kanpaina denda** hartu eta Irati aldera joango naiz.
24. a) Batzarrera sartzeko, elkarteko **karneta** erakutsi beharko duzu.
b) Batzarrera sartzeko, elkarteko **txartela** erakutsi beharko duzu.
25. a) Baduzu **kexarik** ariketa hauetaz?
b) Baduzu **kexurik** ariketa hauetaz?
26. a) Ez **kikildu** zure iritzia ematean, badugu **konfiantza** gure artean, ez da?
b) Ez **kikildu** zure iritzia ematean, badugu **konfidantza** gure artean, ez da?
c) Ez **kokildu** zure iritzia ematean, badugu **konfiantza** gure artean, ez da?
d) Ez **kokildu** zure iritzia ematean, badugu **konfidantza** gure artean, ez da?
27. a) Lana aurrera ateratzeko beharrezkoa da guztion **konpromisoa**.
b) Lana aurrera ateratzeko beharrezkoa da guztion **konpromezua**.
28. a) Adierazpen horiek **kontestotik** kanpo atera dituzte.
b) Adierazpen horiek **kontestutik** kanpo atera dituzte.
c) Adierazpen horiek **testuingurutik** kanpo atera dituzte.
29. a) Autobusak huts egiten didanean, **autoan** etortzen naiz lanera.
b) Autobusak huts egiten didanean, **automobilean** etortzen naiz lanera.
c) Autobusak huts egiten didanean, **berebilean** etortzen naiz lanera.
d) Autobusak huts egiten didanean, **beribilean** etortzen naiz lanera.
e) Autobusak huts egiten didanean, **kotxean** etortzen naiz lanera.
30. a) Kretako **laberintoa** jolas parkea zen administrazioaren aldean.
b) Kretako **laberintua** jolas parkea zen administrazioaren aldean.
c) Kretako **labirintoa** jolas parkea zen administrazioaren aldean.
31. a) Txostena prestatzen laguntzen **badidazu**, etxeraino lagunduko **dizut**.
b) Txostena prestatzen laguntzen **banauzu**, etxeraino lagunduko **zaitut**.
32. a) **Legeriak** gizartearekin batera egin behar du aurrera.
b) **Legediak** gizartearekin batera egin behar du aurrera.
33. a) Ardoaren prezioarekin, agian, ugaldu egingo dira **liburudendak**, azkenik.
b) Ardoaren prezioarekin, agian, ugaldu egingo dira **liburu-dendak**, azkenik.
c) Ardoaren prezioarekin, agian, ugaldu egingo dira **liburu dendak**, azkenik.
34. a) George Stephenson-ek **lurrinezko** tren aasmatu zuen.
b) George Stephenson-ek **lurrunezko** tren aasmatu zuen.
35. a) **Irakasle ikasketak** non egin nituen? **Irakasle eskolan**, jakina.
b) **Magisterioa** non ikasi nuen? **Magisterio eskolan**, jakina.
c) **Magisteritza** non ikasi nuen? **Magisteritza eskolan**, jakina.

SOLUZIOAK

HITZEZ HITZ

1 A) Galdegaiaren ohiko araua betez

Halaber, ikasle batzuek ez dutela euskara batua, ezta etxeko euskalkia ere, menperatzen egiaztatu da *Arauaren salbuespena erabiliz edo bestelako bidez baliatuz*

Halaber, egiaztatu da ikasle batzuek ez dutela euskara batua, ezta etxeko euskalkia ere, menperatzen.

B) Galdegaiaren ohiko araua betez

Zenbait adituk euskara batuak beren euskalkien ezaugarriak ez zituela biltzen eta horrek bizitasuna kentzen ziola egin nahi zen proiektu berriari uste izan zuten.

Arauaren salbuespena erabiliz edo bestelako bidez baliatuz

Zenbait adituk uste izan zuten euskara batuak ez zituela beren euskalkien ezaugarriak biltzen eta horrek bizitasuna kentzen ziola egin nahi zen proiektu berriari.

C) Galdegaiaren ohiko araua betez

Hori guztia hobeto ulertzeko, euskarak zabaldu egin duela bere hiztegia, bateratu egin duela ortografia eta estilo-aldaketa handia nozitu duela hartu behar dugu kontuan.

Arauaren salbuespena erabiliz edo bestelako bidez baliatuz

Hori guztia hobeto ulertzeko, kontuan hartu behar dugu euskarak zabaldu egin duela bere hiztegia, bateratu egin duela ortografia eta estilo-aldaketa handia nozitu duela.

D) Galdegaiaren ohiko araua betez

Espainiako Konstituzioak, 1978koak, bere hirugarren artikuluan, espainiar guztiak gaztelania jakiteko betebeharra eta erabiltzeko eskubidea dituztela ezartzen du.

Arauaren salbuespena erabiliz edo bestelako bidez baliatuz

Espainiako Konstituzioak, 1978koak, bere hirugarren artikuluan ezartzen duenez, espainiar guztiak dituzte gaztelania jakiteko betebeharra eta erabiltzeko eskubidea.

GRAMATIKA

- 2
- | | |
|---------------------|-------------|
| 1. b | 19. a |
| 2. b | 20. a, b |
| 3. b | 21. a |
| 4. a, b, c | 22. c |
| 5. a, b | 23. a |
| 6. b | 24. b |
| 7. a | 25. a, b |
| 8. b, c | 26. a |
| 9. a (hobetsita), b | 27. a |
| 10. b, c | 28. c |
| 11. c | 29. a, b, d |
| 12. a | 30. c |
| 13. a | 31. a, b |
| 14. a, b, c | 32. a, b |
| 15. b | 33. b, c |
| 16. a | 34. b |
| 17. a, b | 35. a |
| 18. a | |

